

EITBk eta EHUK antolatzen duten Multimedia Komunikazio Masterraren aurkezpena egin da Leioako Kanpusean

Xabier Madariaga gonbidatuak kazetaritzan izandako esperientzia kontatu du hitzaldiko azken erdian

Nerea URAGA eta Maialen MURO

EITBk eta EHUK hainbat enpresetan praktikak eskaintzen dituen Multimedia Komunikazio Masterra aurkeztu zuten atzo Bizkaiko Kanpuseko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. Hitzaldian masterraren helburua, ikasketa-plana eta praktikak zertan zetzaten azaldu zen.

Multimedia Komunikazio Masterraren 9. edizioak komunikazioa egungo testuinguruan zein leku duen azaldu nahi du. Pantaila anitzetako kontestua da komunikazioarena eta ez bakarrik hedabideei loturiko alderdian. Hala ere, gaur egun mugikorretatik kontsumitzen dugun informazio gehiena hedabideetatik eratorritakoa da.

Master honen ikasketa plana derrigorrezko 9 ikasgaiez eta hautazko beste hainbatez osatuta dago. Aurtengo hautazko ikasgai berriak marketing digitala, big-data eta sare-sozialen kudeaketa dira. Eskolak astelehenetik ostegunera izango dira, 16:00etatik 20:00rak arte. Ikasleek 2 tutore ezberdinen laguntza izango dute, unibertsitateko bat eta lantokian bestea.

Praktikaldiak 3 hilabetekoak dira eta aurtun berritasun batekin dator masterra: EITB-k 6 hilabeteko kontratu-beka eskainiko die 4 ikasleei.

Masterraren bukaerako lana egingo da praktikak ondoren eta hiru motatakoa izan daiteke: teorikoa, aplikatua edo ebazpena. Kasua azken hau izanez gero, gai bat erabaki eta garatu, tutore bat aukeratu eta master amaieran aurkeztu beharko da. Masterrari buruzko erabakiak ez ditu bakarrik zuzendariak hartzen, baizik eta batzordeak ere.

“Kanpoan egoteko grina”

3. mailan Erasmus bezala Landcasterren korrespontsal lanetan ibili zenean konturatu zen Xabier Madariaga ez zuela geldirik geratu nahi. Behin, 4. mailan zegoela, Jerusalemgo korrespontsala ikusi eta berak ere han egon nahi zuela erabaki zuen. Irratian baietza eman zioten, goizero kronika bat erosiko ziotelakoan. Konpromisu bakarra hori zen eta hirian arriskuan bazegoen ere, han jarraitu zuen.